

Goizueta 1427ko apeoan

PATZIKU PERURENA*

Erdi Aro berandukoaz, hala esan izandu da Goizuetari buruz, batez ere, entziklopedia politegi horietan: ... *disfrutó de algunos derechos señoriales sobre él, por los años 1381 D. Beltran Velaz de Guevara, señor de Oñate*. Hori ezaguna da, eta baita holako eta zaharragoko beste datu solte asko ere. Honetan aditua, eta holako datu polit asko kronologikoki jasota dauzkana, Jose Javier Etxeberria jauna dugu, Goizuetan bertako seme eta mediku ezaguna. Datu horiek argitaratzea ere ez litzateke gaizki etorriko Goizueta hobeki ezagutzen joateko, baina, oraindik hobea izanen litzateke Erdi Aro osoko datu solte horietan aipatzen diren dokumentuak xehero aztertzea. Animo bada, ikasminez zatozen goizuetar *mediavalista* horri.

Nire hemengo lana eta jakituria urria, arrunt bestelakoa da. Nolabait esan, XV mendetik honuntz hasten baita, eta aldi hori, *Velaz de Guevara* bezalako jauntxoan aldia atzera utziz, batez ere, Orreagarekiko akordioekin eta auziekin bateratsu hasten zaio Goizuetari. Hitzarmenik zaharrenetakoa, aurrenekoa ez bada behinik behino, 1406koa da, nik dakidanez. Hara nola hasten den¹:

(...)Escritura de Combenio: Sepan quantos esta presente carta veran et oiran que como devat et contienda fue movido et esperase ser entre (...) Religiosos los Canonigos de la Orden et Hospital de Santa Maria de Roncesvailles demandantes et defendientes de la una part et los vecinos et moradores de la villa de Guoizueta demandantes et defendientes de la otra part diziendo los dichos vecinos et moradores del dicho lugar de Guoizueta (...) de tanto tiempo en aqua que memoria de hombres no es en contrario pagando a los Seinnores del dicho lugar de Guoizueta et Anizlarrea que antes del dicho Hospital fueron Seinnores (...) las siete partes et Seinnorio en el dicho lugar por cada casa dos sueldos usaron et acostumbraron et eran en uso tenencia y posesion del dicho lugar de Guoizueta.

* Idazlea.

¹ GUA, 40. sorta, 1406ko hitzarmena.

Nik Goizuetako Udal Artxiboan ikusi dudana, 1797 urtean idatzitako kopia da. Baditu hutsarte ttiki batzuk, 1406ko eskuidatzia hondatua omen da-goelakotz ezin osatu izan omen direnak, baina izatez jatorrizkoaren kopia fidelak omen da, eta puntuz puntu zehazten du Goizueta eta Orreaga arteko hitzarmena, bazka, egur, ezkur, ur, alor, abere, etxe, eliza eta abar nola gobernatu, elkarren arteko legeak paratuz. Nola ez, dokumentu honek xehero aztertzea eskatzen du, baina oraingoz ez dut horretarako denborarik izan. Hurrengo batean beharko.

Aurren hitzarmen idatzi hartatik gutxira, 1427an, apeoak egin ziren herri-herri herri, kasik Nafarroa osoan, eta haien artean² ageri da Goizuetakoa ere. Nik, orain dela hamabosten bat urte, Herriko Etxeko artxiboan, herri errol-den sortan³ aurkitu nuen haren kopia, eta interesgarria iruditu, orduko Goizuetaz irudipen batzuk egiteko. Horregatik aztertu eta landu nuen bururen buru. Huraxe duzu, beraz, hemen oso osorik azalduko dizudan lana.

1427 URTEKO APEOA

Deus baino lehen, honatx jatorrizko testua⁴, zure hobe beharrez, neronek moldeko letratan paratua:

En la informacion recibida por los Comisionados nombrados por los Reyes de este Rno. de Navarra Dn. Juan y Da. Blanca por su Real zedula de beinte de Nobiembre de 1427, para abiriguar fuegos que habia en los Pueblos de este Reino y en la recibida por lo correspte. a la villa de Goizueta es la siguiente:

Primo. nos los dhos. comisarios recibimos jura sobre la Cruz et Santos Evangelios tocandolos manualment de Johancote e Machin vecinos del dho. lugar de Goizueta, et sobre la dha. jura interrogados cuya es la Abadia del dho. lugar de Goizueta, dixieron que la Abadia del dho. lugar es de Dn. Sancho morant en el dicho lugar de Goizueta el qual tiene en el dicho lugar una Casa do mora et un mazanal vieyo et que no hay otros clerigos ni Beneficiados en el dicho lugar que hayan bienes patrimoniales en el dicho lugar de Goizueta. Et bien asi interrogados quantos moradores casa mantenientes hay en el dicho lugar de Goizueta dixieron que hay los que se siegwen:

- 1. Primo el dicho Johancote con su suegro que paga por quarter diez y nuebe sueldos.*
- 2. ⁵ el dicho Machin dos sueldos seis dineros.*
- 3. Maria Miguel viuda con su fijo casado veinte y nueve sueldos seis dineros.*
- 4. Maria viuda seis sueldos seis dineros.*
- 5. Jacue quatro sueldos.*
- 6. Martin Balzan el joben quatro sueldos.*
- 7. Miguel Delavadia.*
- 8. Maria Johan cinco sueldos seis dineros.*
- 9. Johan Divero nuebe sueldos.*

² NAH/AGN, CO-FUEGOS, N4.

³ GUA, 3. sorta, erroldak, 1427-1828 urteak

⁴ Ikus atzenezan faksimilaren argazkiak.

⁵ Izen zerrenda erabil-errazago egitearren, *Ytem* guziak kendu eta zenbakiak sartu ditut.

10. *Gracia viuda con su fijo casado nuebe sueldos.*
11. *Martin Zubiri seis sueldos.*
12. *Martin Echeverri doze sueldos.*
13. *Martin de Ximeniz cinco sueldos.*
14. *Pero ochoa quinze sueldos.*
15. *Johan Dorotz cinco sueldos.*
16. *Maria viuda dos sueldos.*
17. *Martin Sagasti dos sueldos.*
18. *Martin feramentero cinco sueldos.*
19. *Martin Ezquerria con su coinado en casa diez sueldos.*
20. *Martin fijo del merino quinze sueldos.*
21. *Ochoa Zubiri tres sueldos seis dineros.*
22. *Martino Erdoza (?) site sueldos.*
23. *Martin Jendezo (?) seis sueldos.*
24. *Johanco Andia onze sueldos.*
25. *Miguel siete sueldos seis dineros.*
26. *Martin Duitzi cinco sueldos.*
27. *Martin Merino quatro sueldos.*
28. *Alviza (?) viuda ocho sueldos.*
29. *Martin Santz treze sueldos.*
30. *Gastea Beatza seis sueldos.*
31. *Johan Garcia diez sueldos.*
32. *Miguel Johanesto cinco sueldos.*
33. *Maria viuda con su yerno en casa doze dineros.*
34. *Martin Balzan treinta y dos sueldos.*

Et que todos los sobredhos. son labradores. Ynterrogados que cargas han, dixieron que deben de pecha en cada un aino a la orden de Santa Maria de Roncesvailles veinte libras fuertes et mas del Busto yerbas et agoas que son de la dicha orden pagan en cada un aino aquellos que ponen sus ganados en aquellos ciento y ochenta florines.

Ynterrogados que revenidas han, dixieron que no han revenidas algunas en dicho lugar de Goizueta de cosa alguna por razon que el dicho lugar et sus terminos et montes son de la dicha orden de Santa Maria de Roncesvailles et quando quieren con sus ganados explotar los dichos montes, yerbas et agoas que contribuyen a pagar en los dichos ciento y ochenta florines segunt su ganado porrata con los otros que ponen ganados con los dichos terminos.

Ynterrogados de que viven, dixieron que quando Dios los quia que cugen miyo uno con otro pora su provision de tres meses del aino et non cugen pan ni uino et pora tres pomada et viven sobre sus pocos ganados granados et menudos que han et sobre las ferrerias que han quatro o cinco del dicho lugar et alogandose con sus Bestias a carrean et fazen carvon et trayen mina et fierro pa. su hoguero et viven con grant travaillo et con grant afan de sus Personas.

Ynterrogados de la disminucion del dicho lugar dixieron que con la gracia de Dios destos veinte y cinco a treinta ainos estan en su estado et no son diminuidos de Casas alguna et faillase que pagan por quarter diez florines.

Apeo de informacion de los fuegos de Goizueta recebida el año 1427. Es sacada esta razon de los libros de Camara de Comptos.

Horretxetan bukatzen da Goizuetako herriaz nik ezagutzen dudana apeorik zaharrena. Badakit lehenagotik 1376 aldean egindako apeoa ere badela kasik Nafarroa guzian, baina, zoritxarrez ez da ageri Goizuetarik zerrenda ho-

rretan, ez behintzat nik Nafarroako Artxibo Handian ikusi dudanean⁶, nahiz inguruko beste herri tiki asko ageri diren. Dena dela, 1376ko apeo horretan, etxe zerrenda hutsak ageri dira oro har, eta orduko bizimoduaz ez da kasik beste deus esaten.

Gero, 1427ko apeo hau egin eta urte gutxira, bi aldiz erre zen Goizueta. Bai baitakigu, “*que fue incendiado por los castellanos en la guerra de 1430, en cuya consideración le libertó el rey de cuarteles por diez años*”. Hala baitio Julio Caro Barojak, eta ez hori bakarrik baita kontu gehiago ere, “La Casa en Navarra” lanean⁷ Goizuetaz ari delarik:

En la Edad Media Goizueta fue, sin duda, un pueblo todo él de madera y es probable que nada quede en él de antes de 1429, en que fue incendiado en la guerra de Navarra con Castilla. Diez años después se hacía una torre y fortificación. El incendio y la tarea reconstructiva lo eximen de ciertas contribuciones y por ello sabemos que tubieron lugar en las fechas indicadas.

Eta pasarte honi dagokion azken oharrean, berriz ere, honela dio:

Destrucción de Anizlarrea, Vera y Lesaca en 1429. En Goizueta se destruyen cubas, arcas, y «pomadas»; las ferrerías de Ibero y Necue con su mina y carbón. También Cibola, Alduncin, Elama, Articuza, y Arranbide, con sus ruedas y anteparas. Se dispone en 23 de marzo del año 1431 la reconstrucción de la fortaleza.

Azkeneko honek Zibolako dorretxea behar du izan, inondik ere. Baina, kontuak kontu, natorren atzera 1427ko apeora, eta isur dezadan argi pittinen bat haren gainera, nire sorterri maitea hobekixeago ezagutu nahi honetan.

AZALPEN BATZUK 1427KO APEOAZ

Axaletik samar bada ere, merezi duela uste dut hor ageri diren kontu tiki batzuk aipatzea. Izanez ere, gaurko egunetik begiratuak, ulergaitz samar gerta bailitezke orain seirehun urteko hitz, kontzeptu, esanera eta pasarte asko.

- **Bizimodua:** Urtean hiru hilabetez artatxikia egiten zuten. Garirik (ogirik) eta mahatsik (ardorik) inork ez zuen egiten. Beste hiru hilabetez *pomada* egiten zuten; badirudi *pitar* gisako edari ahula zela, sagarpaxaz egina. Bazituen famili bakoitzak larrabehe, zerri, ardi eta ahuntz banaka batzuk ere. Laubost burniola ere baziren herrian, eta abereekin baliatzen ziren egur ikatza, meatza eta burnia beren sutebietara garraiatzeko, eta hala, lan eta afan haunditan bizi omen zen jendea Goizuetan, orain 600 urte inguru.
- **Zergak:** Urtero hogeitaz libera (libras fuertes) ordaitzen zion zerga (pecha) Goizuetako herriak Orreagako Santa Mariaren ordenari, eta haren jabetzako (Anizlarreko) larretan (sarobetan) ganadua bazkatzen zuten abeltzainek urteko 180 florin gainera, abelburuak gehitu edo gutitu ahalean, urtero abeltzain bakoitzari zegokiona hainbanatuz.

⁶ NAH/AGN- CO-FUEGOS N1.

⁷ Bigarren liburuko 274-5 garren orrialdeetan.

Askotan aditzen da: «*Ze kanbiok! yon den berroi urte ontan?*». Ez bada. Orain 600 urte bezalatsu bizi gara, funtsean: aterbe koxkor bana, zer edo zertatik jan, edan, jantzi, eta herriko eta mendiko zergak goitik behera ezarritako *ordena santuren* bati ordainduz; Badirudi hizkeraz eta itxuraz baizik ez garelako aldatzen pittinen bat.

- **Diru klasek:** *sueldos, dineros, florines, libras fuertes...* Badu zertan jostatua numismatikan zaletua edo aditua denak. **Sueldo**, lat. *solidus*, egundaino iraun du gure ahotan: *xueldo erdia, xueldoa, bi xueldokoia; soldata, sueldo, salario*. **Dinero:** lat. *denarius*, gure *denari, diharu, diru* ere sustrai berekoak dira. **Florin:** ital. *fiorino*; Florentziako Medicistarrek sortu eta ertaroan nazioarteko moneta izandua. **Libra fuerte:** lat. *libram*, erromatarren pisu neurri zaharra, kilo erdi ingurukoa, 16 ontzetan zatitzen zena. Hartatik gero *libra* izeneko moneta, hasieran kiloerdi *urre* edo *zilar* balio zuena. Oraindik nazio askotako moneta ofiziala da. Gure gusaso goizuetarrek pisu neurritzat ezagutu izan dute, batez ere: «*hiru librako ogia, libra erdi bat txokolte,...*».

Orduko erdal hitzez zerbait:

- **Alogandose:** *baliatuz, enplegatuz, errentan hartuz*: «*...alogandose con sus Bestias a carrear...*». Beste hitz zahar asko bezala, latinetik hartua, eta euskara zaharreko *alobera, alogeratu, alokatu, alokairu* hitzen sustrai izandua.
- **Bestias:** lorreko edo bastako abereak. Hara zer dion Jimeno Juriok, Tafalla aldeko bere hiztegi historikoan⁸: “*ABERIAS: Haberos, abrios: bestias de carga o labor. Carlos III el Noble concedió a Tafalla el privilegio de «feria por vender, comprar, cambiar et descambiar todas et quoaes quiere cosas, Auerias et mercaderias (1418)»*”. Ikaragarria da euskaraz *abel, aberre, aberats* hitzen inguruko aberastasun semantikoa. Ikus hiztegi berean, latinaren kidesan nabarmena: (PECUNIA: dinero, riqueza (es palabra latina derivada de «Pecus» = animal, ganado).
- **Busto:** gero erdaraz *bustaliza* edo *sel* ere deitua, besteak beste bazkatarako larre mugatua zen. Behar bada euskaraz *sarobe* zirelako sorra eta egitura argitzeko balio lezake *busto* hitzak, mugarri patroiz gisako zerbait adierazten zuela baitirudi. Dena dela, garai hartako zergekin uztartua ageri zaigu, gaurko katastroaren antzeko zerbait. Nik uste, egunen batean argituko dela nola euskal *uzta*, *uztegi* edo *uztarri* hitzak, hain juxtu, latineko *bustum* hartatik datozen. Ikus gai honetaz zerbait gehiago nire “*Dakiguna ikasten*” liburuan, 120-26 orrietan.
- **Ferrerias:** olak edo burninolak, alegia: «*que han quatro o cinco en dicho lugar*». Besteak beste, izan zitezkeen Zibolakoa, Alduntzingoa, Artikutzakoa, Gotzaingoa, Elamakoa, eta Oharringoa gero Olazarreta deitua, Aranola aldean. Izan ere, burniolak izan baitira gure herriotako diru iturririk aberatsenak menderen mendetan; herri osoa paratzen baitzuten dantzan beren inguruan, olajaunak gidari zituztela, eta inoiz, baita *olandrak* ere, bizkaitarrek esanen luketen bezala.

⁸ *Vocabulario histórico navarro, villa de Tafalla, Aberias.*

- **Fuegos:** suak edo sukaldeak. Oso berandura arte, etxeak beharrean *suak* kontuan hartuz egiten ziren herri bakoitzeko erroldak. Aterbeak edo etxeak berak baino inportantzia haundiagoa zuen beraz suak. Badirudi su baten inguruan biltzen ez zena, ez zela jendetzat ere hartzen, ez benpe aintzat hartzeko jendetzat. Eta zer ote da ohitura, moteilak!... Gaur oraindik, teknika modernoek garai bateko lilura bizi hura estalixe arren, su inguruan antolatzen baita giza arima, *sukalde* edo *hogar* bezalako hitzen aztarren zaharrari eutsiz. Izan ere, sua izaki giza arimaren metaforarik zaharrena eta unibertsalenetakoa. Hala, edozein etxol txar, bertan su egiten hasteak, familia baten bizileku bihurtzen baitzuen. Halaxe bihurtuak dira bizileku, gure bordarik gehienak. Baina ez istilurik gabe: 1650 aldetik honuntz, herri barrengo etxeak abandonatu eta jendea bordetara zabaltzen hasi zenean, neurriak hartu baitziren, aginduz: «*que non pueden facer ogar ni abitar en ellas*». Baina, 1725 ingururako, kasik herriko etxe guzietan bazuten borda bana, eta erroldetan esaten denez «*con ogar y familia*» gehienak.
- **Ganados granados et menudos:** euskara zaharrean *abelgorri eta abeltxe* edo *abeltxuri* deituak. Esan nahi da, orduko *larrabehi gorriak* eta *ardi-ahuntzak*. Garai batean, Orreaga aldetik Aiñarbe aldeko zoko babesotara ekartzen omen zituzten mendibehiak negutzera. Eta udalehenean beren behisailak aurrean harturik, joare kalanka eta marru, goimendietara abiatzen zirenean atzera, hala esaten omen zuten goizuetarrek: «*Hara, unaiak bazeztek! Negua irao diu! Aurtengoz salbo gittuk!!*». Haien eta bertako unaien lekuko hor ditugu oraindik *Unalbide*, *Unalbideko ataka*, *Unaiene*, *Unandegi (Artikutzan)* ... eta antzeko leku eta etxe izenak. Eta apeoak ez du zehazten, baina, *urdea* ere, *menudos* horien arteko izanen zen joan den aspalditik, besteak beste *Urdailu* izenak ederki salatzen digun bezala.
- **Miyo > mijo:** Artatxikia, edo hobeki esan *artoa* oraindik orduan; *artatxiki* izena hirurehun bat urte gerozagokoa baitu. Ameriketatik 1690 aldera *maiza* ekarri eta, euskal lurrotan errotzen hasi zenean bihurtu baitzen lehendik *arto* zena *artatxiki*, eta haren ordeztan, frankoz larriago izateagatik, Indietatik ekarritako *maiz* berria gero *arto*. Aldaketa horren lekuko, oraindik bada jendea, artoari euskaraz *maiza* deitzen diena, edo *maizazuritzallek*, *maizaxuriketak*, *maizalastoak*... Goizuetarren ahotan, ordea, nik beti *misalastok*... Hamaika aldiz aditu, ikusi, bildu, eta erreak, motikozkorretan Benaisoroko alorrean!... Eta, ez dakit inork tajuz esan duen, baina, Ameriketatik sartu zen artoaren merkatuak eragin zuen gure baserrien eta artalurren ugalketa ere, ordura arte beste deusek (gari, garagar, olo) ez bezala.
- **Pecha:** zerga, *impuesto*, *contribución*. Euskaldun zaharrek, halabeharrez, ederki berenganatua zuten: *petxa*, *petxero*. «*Ez nauk ni inoren petxero*»: .. *inoren menpeko*. Eta, bizkaerazko *bezu* hitza ahaztu gabe, nago ez ote liteken erro berekoa izan, atzenaldera franko gailendu zaigun *bezero* hitza ere. Herri bakoitzak, segun eta noren jabetzakoa zen, elizari, erregetzari edo jaun nobleren bati ordaindu behar izaten zion *petxa*, dirutan, laboretan, aberetan edo baita meatzetan eta egurretan ere.
- **Pomada:** badirudi *sagardo* edo *pitar* gisako edaria zela, izan ere latinez *poma* deitzen baizitzaion sagar klase koxkor bati, eta hartatik *poma* +

ada, egungo limonada edo laranja gisara sortua. Hona Florencio Idoate ikerleak diona: “*Había sí bebidas refrescantes como ahora,... en la Montaña la «pomada» o sidra; lo que producía la tierra*”. Sagar basakak ote ziren, orduan, gailen, eta ez apropos itxi eta landutako sagastiak? Bietatik uste nik. Dena dela, eta xehetasunetan sartu gabe, garai hartan eta puskaz gerozago ere, luxu haundiko edari noblea izan da ardoa mendialdeko euskaldunontzako.

- **Porrata:** hainbanatu, bakoitzari bere proportzioan banatu. Oraindik *prorrata*, *prorrateo* erabiltzen da administrazioan, euskal hiztegi tekniko lehor horietan euskarazko ordainik ageri ez bada ere.
- **Quarter** > cuarter > cuartel: herriko ondasunetatik ateratzen zuten diruaren lautatik bat, *quarter*, erregeari ordaintzen zitzaion urtero. Herri bakoitzari tokatzen zitzaiona, su edo familia bakoitzari hainbesteko bana kenduz hornitzen zen.
- **Travaillo** > trabajo: lana, zer ba bestela? Galegoa eta portugesa dakartzio bati gogora, baina *trabailu*, *trabailatu*, *trabailari*... hitzak dotore aski bereganatu zituen euskarak ere latinetik, batez ere ekialdeko euskalkietatik honuntz. Honatx Axular aipatuaren pasarte xoragarri batzuk garbizaleen tentagarri: «*Gizona sortzen da trabailuko eta hegaztina aireko. Hanbat pena eta trabailu! Zenbait trabailutan eta egitekotan! Alfer trabailu!*». Nere honegatik ote zioen?

Hizketako usantzak eta mudantzak:

- **Fonetismoak, grafismoak, bihurrerak:** *fijo* > *hijo*; *Martin* > *Machin*; *Johan* > *Juan*; *Martin de Ximeniz* > *Jimenez*; *Pero ochoa* > *Peru* > *Pedro*; *aino* > *año*; *agueillos* > *aquellos*; *dixieron* > *dijeron*; *agoas* > *aguas*; *logar* > *lugar*; *Ronzesvailles* > *Roncesvalles*; *quando* > *cuando*; *segunt* > *segun*; *cugen* > *cogen*; *miyo* > *mijo*, *grant* > *gran*; *travaillo* > *trabajo*; *diminucion* > *disminución*; *quarter* > *cuartel*; *faillase* > *hallase*; *recevida* > *recivida*; *et* > *y*; *morant* > *morante*, *morador*; *fazer* > *hacer*; *trayer* > *traer*, *abiriguar* > *aberiguar*; *explitar* > *explotar*, (*gozatu*, *probextu*)...
- **Atzizki zahar batzuk, hipokoristikoak edo:** *Johancote*, *Johanco*, *Johannesto*, *Martino*... Filologo doktoreen esku uzten dut sail hau, nere jakinduria motza baita hainbeste *kokoteko* argitzeko.
- **Adizkien semantika aldaerak:** *han* = *tiene*; *hayan* = *tengan*. Euskaraz, gauza beratsua gertatu da *izan* = *ukan* aditzekin, eta oraintsu *izan* = *egon* delakoeekin. Nik umetan «*atta, ama,... itxen al da?*» besterik ez nien aditzen xaharrei Goizuetan, baina orain lautatik hirutan: «... *etxen al dago?*» besterik ez helduon artean ere. Bidenabar esan, eta arrazoi berberagatik, gure museko “*hordago!*” hori ere, ezin izan oso zaharra, baldin eta etimologiaz “*hor dago!*” dela defendatu nahi bada behintzat.
- **Ahaidekotasuna:** *viuda*, *suegro*, *fijo* (*hijo*), *casado*, *coinado*... Ez du ematen, odol lokarriak egitekoan, hiztegia asko askorik berritu dugun geroztik. Eta, egia esan, *coinado* > *coñado*; *aino* > *año* bezalako grafismoak ikusirik, badirudi, kastillano zaharra hartu dugula eredu, euskal grafia modernoa finkatzekoan, ez?

⁹ *Rincones de la Historia de Navarra*, III, 21.

- **Etxeak eta izenak:** Testuak atzenaldera esaten duenez, ... “*destos veinte y cinco a treinta años estan en su estado et no son diminuidos de Casas alguna*”..., badirudi 1395 urte ingurutik 1425 aldera arte ez zuela aldaketa haundirik izan Goizuetak, eta aldi hartan bazirela gutxinez 34 etxe zerga pagatzen zutenak, eta beraz etxejabe edo *casamantamientos* zirenak. Eta aukalo beste erdipurdiko enbat etxetxo. Eta denak egurrezkoak seguraski, eta beren izen jakinik gabeak, gainera. Ageri da, hala ere, gero etxeizen bihurtu eta mendez mende bere hartantsu iraun duen aztarren franko: “*Johancote > Joanikotenea; Johanco > Joanikorena; Machin > Matxintxa; Mari Johan > Marijoangorena; Yacue > Yakutxena; Pero Ochoa > Peronea; Martin Zubiri > Zubirinea; Martin Santz > Martisantzenea; Alviza viuda > Albaizarena, Johan Garcia > Joangartzinea...*”. Goizuetan bertako bikario izan zen Don Bixente Hernandorenak bildu eta txukun azaldu zizkigun etxeizen¹⁰ batzuren sustraiak bilatzeko ere zerrenda aproposa dirudi.
- **Euskal deiturak:** *Jacue, Martin Balzan, Martin Zubiri, Ochoa Zubiri, Martin Echeverri, Martin Sagasti, Martin Ezquerria, Johanco Andia, Gastea Beatza, Martin Balzan el joben, Gastea Lopez...* Azkeneko hau, gerora ere elizako liburuetan maiz ageri den deitura Goizuetan. Baita gero etxeizen gisan ere: *Gastelopezena*. Hor ikusten da ederki, gaurregun *izengoititzat* jotzen ditugunak, izan zirela gaurko gure deitura ofizialen sorburu: *Etxeberri, Sagasti, Ezkerra, Andia, Gaztea...* Gaurregun iduritzen zaigu betidanik izan ditugula bi, lau, zortzi, edo hamasei apellido ofizial, baina goiko deitura horietan ikusten da ederki, gure deitura ofizialak ez direla hain aspaldikoak. Izan ere, Trentoko Kontzilio ondore arte (1570-80) ez baitzen sortu diziplinarik, gure herriotako jendearen odol lokarriak deitura ofizialez errejistro liburuetan finkatzeko.
- **Sortetxetik edo sorterritik deitura:** *Johan Divero*, Iberokoa; *Martin Duitzi*, Huitzikoa, *Johan Dorotz*, Orozkoa. Gerora, elizako liburuetan ere, *Orozco* deitura maiz ageri da Goizuetan. Lehen esan dut, Trentoko kontzilioaren ondoren hasi zirela herriotako jendearen deitura ofizialak finkatzen, baina orduan ere, besterik ezinean, deitura asko sorterritik, sortetxetik, oletatik, lanbidetik, gurasoen izenetik... hartu ziren: *de Goizueta, de Ubici, de Alduncin, de Ibero, Martinena, Michelena, Arozena, Argiñena, Merino, Escudero...*
- **Zalantzazkoak:** *Martino Erdoza* (?), *Martin Jendezo* (?), *Alviza viuda* (?). Azkenekoak *almes > almiz, almitz > albitz* landare eta belar izena dakarkit gogora. Koldo Mitxelenak hala dio: “*Albi-*. Parece haber sido un nombre personal a juzgar por el ap. *Albirena*, que parece un patronímico en *Albiz*; cf. la forma vasca *Albaiza* o *Albeiza*, del pueblo alavés *Albéniz* (doc. *Albiniz*, 1025)”. Erro berekoa izan liteke Goizuetako *Alviza* hori ere, gerozko *Albeizarena* patronimikoak ere hala erakusten baitu. Gauza beratsua esanen nuke *Erdoza* eta *Jendezo* deiturei buruz, jende izakerari dagozkion adjetiboak direla: **Erdoza** = *erdotz* (?): *txukun, gerttu, langille*. Dena dela Nafarroako deitura eta etimologia kon-

¹⁰ CEEN, nº 28, 75-90 orriak.

tuotan Patxi Salaberri jaunaren lana¹¹ ikustea zenuke hoberena, edo Mikel Belaskorena¹².

Lanetik edo ofiziotik deitura:

Abadia: «*Miguel Delavadia*»: abadetzakoa alegia. Garai hartan, dudarik gabe, abadetxea zen Goizuetako etxerik gailenena. Ikusi besterik ez, apeoan nola aipatzen den, bere sagasti eder eta guzi, beste denetarik bereiz, eta guzien buru.

Feramentero: «*Martin feramentero*»: Herrementari edo harotz esan nahi ote zuen nago *feramentero* delako horrek, inondik ere: *ferramentero* > *feramentero* (?). Baina, ez dut hiztegi historiko zahar fidagarrietan segurantziaz ikusteko aukerarik izandu.

Merino: «*Martin Merino, Martin fijo del merino*»: merinalde bakoitzeko buruzagia zen merioa, gero deitura bihurturik leku askotan gelditu zaiguna. Baina, ez hori bakarrik, Iruñeko Merinaldeko merioa Goizuetako Jauna izana zen behin baino gehiagotan, eta goiko deitura horretatik atera litekeenez, aldi hartan ere baliteke halaxe izatea, baina, ez dut betarik izan datu hori ongi aztertzeko. Nik segurantziaz dakidan gauza bakarra da, 1682an halaxe izan zela¹³:

Don Joan Fco. de Alduncin y Vertiz cuyos son los palacios de su apellido merino mayor de la merindad de la Ciudad de Pamplona, alcalde y juez ordinario desta villa de Goyzueta por su magd. en el presente aino 1682.

Horretan sinale Goizueta aldeko olajaunek eraginik aski bazutela Iruñeko Gorteetan. Izanez ere, garai hartan, jenderik aberatsenetakoak baitziren Iruñetik Urumea bitarte honetan.

¹¹ *Euskal Deiturategia: PATRONIMIA*. UEU, Bilbo 2003.

¹² *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra. Apellidos Navarros*, Pamplona, 1996.

¹³ NAH, Goizueta, Martin Alduncin eskribaua, 1682 urtea, 3-9 orriak.

LABURDURAK

CAN:	Caja de Ahorros de Navarra
CEEN:	<i>Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra</i>
GUA:	<i>Goizuetako Udal Artxiboa.</i>
NAH/AGN	<i>Nafarroako Artxibo Handia/Archivo General de Navarra</i>
UEU:	<i>Udako Euskal Unibertsitatea</i>

BIBLIOGRAFIA

- BELASKO, M., 1996, *Diccionario etimológico de los nombres de los pueblos, villas y ciudades de Navarra. Apellidos Navarros*, Iruñea.
- CARO BAROJA, J., 1982, *La casa en Navarra*, CAN, Iruñea.
- HERNANDORENA, V., 16978, "Goizuetako etxe eta baserrien izenak", *CEEN*, Iruñea, 1978.
- IDOATE, F., 1997, *Rincones de la Historia de Navarra*, Iruñea.
- JIMENO JURÍO, J. M., 1987, *Vocabulario histórico navarro (villa de Tafalla)*, Tafalla.
- MARTINENA RUIZ, J. J., 1979, *Catálogo Documental de la Real Colegiata de Roncesvalles (1301-1500)*, Iruñea.
- MIRANDA GARCIA, F., 1993, *Roncesvalles, Trayectoria patrimonial (siglos XII-XIX)*, Iruñea.
- OSTOLAZA ELIZONDO, M. I., 1978, *Colección Diplomática de Santa María de Roncesvalles (1127-1300)*, Iruñea.
- SALABERRI ZARATIEGI, P., 2003, *Euskal Deiturategia: Patronimia*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.
- YANGUAS Y MIRANDA, J., 2000, *Diccionario de Antigüedades del Reino de Navarra*, Iruñea.

En la ynfirmitad recibida por el Emperador nro señ
 dor por los Reyes de Castilla e Navarra D^{na} Juana y D^{no}
 Blasco para Real cedula de fecha a 15 de Agosto de 1427
 para abrogar los fueros q^{ta} habia en los P^{des} de Castilla
 y en la de Navarra p^{ta} lo concerniente a la villa de Goizueta a la
 p^{ta} de 1427.

Goizueta

Como nos vos dhas Comandantes recovinos para abrogar
 la Carta de Santa Eulalia tocantolot manuscament de
 Tolosa e Auchin vna de las leyes de Goizueta
 la, e sobre la otra para en el nombre de
 la Abadesa de Santa Eulalia e Goizueta
 p^{ta} que la Abadesa de dicho lugar
 e D^{na} Juana de Guada mant en el dicho lugar e
 Goizueta e qual tiene en el dicho lugar
 con el nombre de un manant de agua caliente
 hay otro de agua en el dicho lugar en el
 dicho lugar p^{ta} la qual se ha de pagar
 la cantidad de un real e de un maravedi
 e en el dicho lugar e Goizueta el dicho
 manant de agua caliente e en el
 dicho lugar hay un de dicho lugar e Goizueta
 manant de agua caliente e en el
 dicho lugar de Goizueta e en el
 dicho lugar de Goizueta e en el

Item Esteban Martin dos sueldos seis dineros
 108.
 Item Maria Miguel Viuda con su esposo
 sacdo veinte y nueve sueldos seis dineros.
 Item Maria Viuda seis sueldos seis dineros.
 Item Isaac quatro sueldos
 Item Martin Bulcan el joven quatro sueldos.
 Item Miguel Delavadia.
 Item Maria Johan cinco sueldos seis dineros.
 Item Johan Divoro nueve sueldos
 Item Gracia Viuda con su esposo casado nueve
 sueldos.
 Item Martin Zubiri seis sueldos.
 Item Martin Cereñari diez sueldos.
 Item Martin Dimeña cinco sueldos.
 Item Pau gohoza quinze sueldos.
 Item Johan Dorote cinco sueldos.
 Item Maria Viuda dos sueldos.
 Item Martin Sagasti dos sueldos.
 Item Martin Jorramenac cinco sueldos
 Item Martin Ciguera con su marido
 en casa diez sueldos
 Item Martin Jfo del marino quinze sueldos.
 Item ochoa Zubiri tres sueldos seis dineros.

Item Martin Cidre siete sueldos.
 Item Martin Tendar seis sueldos.
 Item Johano Andia once sueldos.
 Item Miguel siete sueldos seis dineros.
 Item Martin Duce cinco sueldos.
 Item Martin Jacino quatro sueldos.
 Item Maria Vidua ocho sueldos.
 Item Martin Sants trece sueldos.
 Item Garcia Beotxa seis sueldos.
 Item Johan Garcia diez sueldos.
 Item Miguel Johanete cinco sueldos.
 Item Maria Vidua consta yeano en casa
 doce dineros.
 Item Martin Balzan treinta y dos sueldos.
 Et que todas las sobre dhas son Labradores.
 Interrogados que cosas han deaxon queda
 non se pedia en cada un año ala cuden de
 Santa Maria de Ronavalls veinte libras
 justas de mas del Bruto y otras cosas que
 son. La dicha cuden pogan cada un año
 aquellos que ponen sus fincas en aquellos
 ciento y ochenta florins.
 Interrogados que cosas han deaxon que
 no han deaxon algunas en el dicho Logar de
 Guizateo se era alguna por raxon que el di-
 cho Logar es de terminos et montes de la
 dicha cuden de Santa Maria de Ronas.

LABURPENA

Goizueta 1427ko apeon

Egileak lan honetan Goizueta bere sorterriko 1427ko apeoa transkribatzen eta aztertzen du. Apeoaren helburua data horretan Nafarroako erresuman zeuden suak zein eta zenbat ziren jakitea da eta, horren kariatara, goizuetarren zerrenda egiten da, bikaina garai hartako populazioa ezagutzeko. Agiria transkribatutakoan, apeoaren gaineko azalpen batzuk ematen dira, eta garai hartako bizimoduaz, eta zenbait erdal hitz aipatzen eta aztertzen. Azkenik, dokumentuaren fotocopia dator irakurleak jakin-mina ase dezan.

Gako hitzak: Goizueta, hiztegia, historia kontuak, onomastika.

RESUMEN

Goizueta en el apeo de 1427

El autor en este trabajo transcribe y analiza el apeo de Goizueta de 1427. El objetivo del apeo era averiguar cuántos fuegos había en el reino en aquella época y cuáles eran dichos fuegos, y, con ese propósito, se hace un listado de los *casamantenientes* de la villa, recurso inmejorable para conocer la población de la misma en aquel entonces. Una vez transcrito el documento, se hacen una serie de observaciones sobre el mismo y ciertos comentarios lingüísticos acerca de algunos de los términos comunes y onomásticos recogidos en el texto. Finalmente, se incluye la fotocopia del documento analizado.

Palabras clave: Goizueta, diccionario, cuentas históricas, onomástica.

RÉSUMÉ

Goizueta pendant l'arpentage en 1427

L'auteur de ce travail transcrit et analyse l'arpentage de Goizueta en 1427. Le but de l'arpentage était de savoir combien de foyers il y avait dans le royaume à cette époque-là et quels étaient ces foyers et, à cet effet, une liste des «*casamantenientes*» (*propriétaires*) de la ville a été établie, c'était le meilleur recours pour connaître la population de ladite ville à cette époque-là. Une fois que le document a été transcrit, une série d'observations et quelques commentaires linguistiques ont été réalisés à propos de certains termes communs et onomastiques recueillis dans le texte. Enfin, la photocopie du document analysé est jointe.

Mots clef: Goizueta, dictionnaire, comptes historiques, onomastique.

ABSTRACT

Goizueta in the 1427 survey

The author of this article transcribes and analyses the Goizueta survey of 1427. The aim of the survey was to find out how many homes there were in the kingdom at the time and what these homes actually were. For this purpose, a list was drafted of the village's *casamantenientes*, a superb resource to discover the population of the village at the time. After the transcription of the document, a set of observations on it and certain linguistic comments on some of the common and onomastic terms used in the text are made. Finally, there is a photocopy of the document analysed.

Key words: Goizueta, dictionary, historical accounts, onomastics.